

EH Bilduk salatu egiten du EAJ hautagaiak udalaren ekitaldi bat modu elektoralistan erabili duela, alkatea konplize dela

Artziniegako EH Bilduk salatzen du Encina Castresana alkategaiak alderdikieriaz erabili duela ohitura musulmanen gaineko hitzaldi bat. Hitzaldia Udal Liburutegiak antolatu du eta hautagaiak ekitaldia bere egin du eta bere interesetarako erabili du.

Martxoaren 22an "istorio anitzak, kultura musulmana" izeneko hitzaldi bat egin zen, Udal Liburutegiak antolatuta eta Udalak iragarrita. Hitzaldia, ustez, Artziniegan bizi diren emakume musulmanek ematekoa zen, baina azkenean Encina Castresanak berak eman zuen. Suposatu nahi dugu ez zuela EAJren alkategai modura eman.

Ustekabea biharamunean etorri zen, Encina Castresanak berak bere hautagaitza sustatzeko facebooken sortutako orrialdean honela aipatzen zuelako hitzaldia: «Muchas gracias a todas las personas que ayer por la tarde os acercásteis a la biblioteca a la charla sobre la cultura musulmana, fue una experiencia muy positiva y enriquecedora de la que salieron numerosas propuestas y sugerencias a tener en cuenta. Shukraan! #Artziniega #EncinaPrest».

Gure harridurarako, ekitaldiaren antolatzaile gisa agertzen zuen bere burua, eta gainera bere hautagaitzak darabilen #EncinaPrest etiketa idatzi zuen; horrek aditzera ematen du udalaren ekitaldi bat ekitaldi elektoral bihurtu zuela.

EH Bildu Artziniegan uste dugu hau onartzezina eta salatzeko odukoa dela, are gehiago kontuan hartzen badugu Iñigo Gómez alkateak duela egun gutxi inolako justifikazio barik eta udal ordenantzetan oinarritu barik kendu zuela EH Bilduk udal igerilekuetan jarritako kartel bat. Horrek argi utzi zuen urduri daudela berriz ere galduko dituzten hauteskunde batzuk datozelako.

Martxoaren 24an, igandea, EH Bildutik pribatuan alkateari eskatu egin genion gure kexa eta haserrea helarazi ziezaiola Artziniegako Uri Buru Batzarrari hori dela eta, eta eskatu genion atzera egiteko. Gure harridurarako, alkatea EH Bilduko bozeramailearekin jarri zen harremanetan hilaren 26an, asteartea, eta esan zion ez zutela ezer txarrik edo desegokirik ikusten, ez zuela inola erabilpen elektoralistarik ikusten eta udal moduan ezin ziola ezer leporatu EAJri.

EAJk, beraz, udalaren jarduera baten egindako erabilpen elektoralista egin du udala konplize dela, eta horren aurrean Artziniegako EAJren azpikeria salatu behar dugu eta herritarrei horien berri eman, jakin dezaten nortzuk diren gobernuan daudenak eta gobernuan egoten segitu nahi dutenak.